

1. Aurkezpena

Memoria honetan, Hegoak 2016. urtean egindako jarduera akademiko eta sozial nagusiak bildu dira.

Horien artean, bereziki nabarmentzekoa da unibertsitateko irakaskuntza lana, gure hiru masterren bidez bideratua. Hiru master horietako bi –*Globalizazioa eta Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapena*– titulu ofizialak dira, eta gure unibertsitatean eskari handiena duten masterren artean daude; hirugarrena –*Nazioarteko Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Askatzailea*–, berriz, online berezko titulua da, eta bigarren urtez egin zen 2016an. Eskaintza horren osagarri, honako ikastaro hauek ere eskaini ditugu: *Baserritik mundura. Gure elikaduraren etorkizuna jokoan* (I. edizioa) eta *Gizarte mugimenduak eta askapen agendak* ikastaro espezializatua (V. edizioa). Eta parte hartu dugu, halaber, *Economía Plural Solidaria y Comunitaria* masterraren lehen edizioa antolatzen, La Pazeko Universidad Mayor de San Andrés unibertsitateko Garapenerako Zientzien Graduondokoarekin (CIDES) lankidetzan. Bestalde, Hegoako langile eta irakasleek eskolak eman dituzte autonomia erkidego eta herrialde askotako hainbat master eta ikastarotan.

2016an zehar, askotariko jardunaldi, mintegi eta eztabaidak antolatu ditugu: adibidez, *Ekonomia solidarioaren eta ekonomia feministaren arteko loturak estutuz. Politika publikoak Bolivian, Brasilen eta Euskadin* mintegia (urtarrilean); *Feminismoari, giza eskubideei eta memoria historikoari buruzko ikerketa-mintegia* (ekainean), SIMReF mintegiarekin batera antolatua; eta *Piztu da Hazia!* elikadura subiranotasunari buruzko jardunaldiak (urrian).

Era berean, Hegoako kideek hainbat ikastaro, tailer eta hitzalditan parte hartu dugu, herrialde askotan. Adibidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak apirilaren 6an Bilbon antolatutako “Garapenerako Politiken Koherentziari Buruzko Nazioarteko Jardunaldia: nola lagundu behar die Euskadik garapenerako mundu mailako agendaren erronkei?” jardunaldian parte hartu genuen.

Gure jardueren artean, garrantzi handiko ardatza da, halaber, ikerketa. Ardatz hori lantzeko, ikerketa taldeak ditugu garapenari buruzko ikerketa arlo guztietan lanean; txosten honetan bilduta daude horien argitalpen eta jarduerak ere. Aipatzekoa da, gainera, *Garapenari buruzko Ikasketak* doktorego programa –Hegoak koordinatua eta *Mención hacia la Excelencia (Bikaintasunerako Aipua)* aipamena jaso duena– sendotzen jarraitu dugula: hain zuzen ere, hiru doktorego tesi irakurri eta 12 tesi berri inskribatu dira programa horretan.

Hezkuntzaren arloan, VSF-Munduko Elikadura Justizia elkartearikiko lankidetzaren da nabarmentzekoa. Lankidetzaren bidez, elikadura subiranotasunaren eta generoaren ikuspegiak bigarren hezkuntzan txertatzeko bidea emango duen esparru pedagogiko bat sortu nahi dugu. Garrantzi handiko lorpena izan da, orobat, *Hariak. Recreando la educación emancipadora* aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu izana (subjektu politikoaren eraikuntza izan zen haren gaia).

Gure Dokumentazio Zentroari dagokionez, azpimarratzekoa da liburutegi digitalak nazioarteko proiektio gero eta

handiagoa duela; hain zuzen ere, garapen eta nazioarteko lankidetzan espezializaturiko gaztelaniazko datu base nagusietako bat da, gaur egun. 2016an, milioi bat deskargatik gora izan ditu, erdiak Latinoamerikan; orain urte batzuk ezinezkoa zirudien helburu bat bete dugu, beraz.

Hegoa Institutuak, bestalde, hainbat erakunderi aholkularitza zerbitzuak eskaintzen jarraitu du: hala nola, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiei nahiz Eibarko, Irungo eta Ordiziako udalei.

Horrekin batera, beste herrialde batzuetako unibertsitateekin lankidetzan aritu gara; bereziki, Boliviako CIDES-UMSArekin. Hain zuzen ere, *Fortalecimiento de derechos económicos de las mujeres y políticas públicas de economía solidaria en municipios de La Paz 2015* programa abian jarri du unibertsitate horrek, 2016an, Hegoarekin batera.

Azkenik, jarduera horiez gainera, beste hainbat ere agertzen dira txosten honetan, Hegoako kideek gure institutuan eta UPVEHUn nahiz beste hainbat esparrutan egindakoak. Eta zenbait aldizkaritako argitalpen kontseiluetan parte hartzen dugu, baita sare akademiko eta sozial askotan ere. Betiere, jarduera horien guztien bidez gure ikerketa, irakaskuntza, hezkuntza eta aholkularitza lanak dagokion eragin akademikoa, soziala eta politikoa izan dezan lortzeko xedez.

Karlos Pérez de Armiño
Hegoako zuzendaria

2. Prestakuntza jarduerak

Hegoak hainbat motatako irakaskuntzen bidez gauzatzen du prestakuntza jarduera eta garapenerako hezkuntzaren arloko jarduera. Alde batetik, *Garapenari buruzko Ikasketak* doktorego programaren bitartez –Hezkuntza Ministerioaren *Mención hacia la Excelencia (Bikaintasunerako Aipua)* aipamena du–, eta *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta* eta *Globalizazioa eta Garapena* master ofizialen eta *Nazioarteko Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea* online berezko tituluaren bitartez.

Eta, bestetik, Hegoa Institutuko kideok Espainiako, Europako nahiz Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan eskainitako graduondoko ikastaroetan parte hartzen dugu (doktoregoak, masterrak, espezializazioak eta diplomak).

La Pazeko Universidad Mayor de San Andrés (UMSA) unibertsitateko Garapenerako Zientzien Graduondokoarekin (CIDES) batera, Bolivian *Ekonomia plural solidarioa eta komunitarioa* masterraren lehen edizioa babestu dugu. Master horren helburua da sektore publikoko nahiz gizarte erakundeetako profesionalen prestakuntza ematea, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak erakustea, ekonomia solidario eta komunitarioko marko kontzeptualak nahiz prozesu sozioekonomiko eta kultural zehatzak ulertzeko eta aztertzeko, betiere ikuspegi kritiko eta propositibotik, ekonomia plurala eta gizarte eta kultura berdintasunik eza bereizgarri dituen testuinguru batean.

2016an, gainera, *Baserritik mundura. Gure elikaduraren etorkizuna jokoan* ikastaroaren lehen edizioa egin da. Ikastaro hori Etxalde mugimenduaren, EHNE-Bizkaia nekazaritza-sindikatuaren eta Gizarte Mugimenduen eta Kooperazio Kritikoa Ikerketa Taldearen elkarlanetik sortu da, eta helburu hau du: unibertsitatean Elikadura burujabetzari eta Agroekologiari –proposamen emantzipatzaile gisa ulertuta– buruzko prestakuntzarako eta ikerkuntzarako espazioak

gehitzea. Gai horrekin lotuta, *Piztu da Hazia!* unibertsitate jardunaldiak antolatu ziren urrian (Leioa eta Donostia).

Mugimendu sozialen eta emantzipazio agenden espezializazio ikastaroaren bosgarren edizioan hainbat herrialdeetako erakunde eta mugimendu sozialetako aktibistak egon dira: Instituto Ecueménico de Servicios a la Comunidad y Comité de Familiares de Detenidos Desaparecidos en Honduras (Honduras), Grupo América Latina: Filosofía Social y Axiología (Kuba), Crea y Combate (Venezuela), Pañuelos en Rebeldía (Argentina), Movimento Sem Terra (Brasil), Marcha Mundial de Mujeres (Mozambike), Que se Lixe a Troika (Portugal), Je so' Pazzo eta Nodo Tiburtina (Italia), Sindicato Andaluz de Trabajadores y Trabajadoras (Andaluzia), Candidatura d'Unitat Popular (Catalunya), Marea Atlántica (Galiza), eta Eragin, Askapena, Munduko Emakumeak, Komite Internazionalistak eta Emakumeen Mundu Martxa (Euskal Herria).

Ekonomia sozial eta solidarioaren alorrean, Hegoa Institutuak mintegi hauek antolatu ditu: *Ekonomia solidarioaren eta ekonomia feministaren arteko loturak estutuz. Politika publikoak Bolivian, Brasilen eta Euskadin; Ekonomia sozial eta solidarioaren esperientziak eta erronkak. Genero ekitatearekiko konpromisoak* (La Paz, Bolivia), eta *ESS eta ekonomia feministaren arteko loturak; enplegua, politika publikoak eta tokiko garapena* (Bilbo).

Jarduera horren osagarri, ikastaro, hitzaldi, tailer eta mintegiak antolatzen ditugu, beste unibertsitate, GGKE eta erakunde batzuek hala eskatuta.

3. Ikerketa jarduerak

Ikerketa jarduera zenbait talderen eta ikerketa-ildoren bidez lantzen da, eta Hegoa Institutuari atxikitako irakasleek eta ikertzaileek hartzen dute parte, bai eta lan-kontratupeko langileek ere.

*Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetz*a (Eusko Jaurlaritzako talde finkatua). Garapenari buruzko ikasketak eta bakeari eta gatazkei buruzko ikasketak uztartzen lan egiten du, batez ere. Taldekideak: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Leire Agirreazkuenaga, Jokin Alberdi, Eduardo Bidaurratzaga, Marian Díez, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Alba Linares, Irantzu Mendia, Rakel Oion, Juankar Pérez de Mendiguren, Juan Tellería, Unai Villalba, Patxi Zabalo eta Iker Zirion.

2016an berriz ere lortu dute Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa talde gisa izendatzea, kasu honetan A kategoriako talde gisa; horrenbestez, babes instituzionala izango du 2016-2021 aldirian.

Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa. Erreferentzia normatibo gisa Giza Garapena hartzen du ekonomia sozial eta solidarioaren alorretik eta printzipioetatik. Taldekideak: Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, Eflen Areskurrinaga, Eduardo Bidaurratzaga, M^a Luz de la Cal, Marian Díez, Maite Fernández-Villa, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Juankar Pérez de Mendiguren, Carlos Puig, Unai Villalba eta Mikel Zurbano.

Talde honek lantzen dituen gaien testuinguruan, GLEAk finantzatuta, programa hauek ari dira egiten: *Andeetako ekonomia solidarioko mugimenduak indartzen, emakumeen eskubide ekonomikoetan azpimarra jarritz. Bolivia, Ekuador eta Peru* (PGM 2012BA/013) eta *Emakumeen eskubide ekonomikoak eta ekonomia solidarioarako politika publikoak indartzen La Pazeko udalerrietan* (Bolivia, PGM 2015BA/010).

Gatazkak, bakea eta garapena. Giza segurtasunaren, bake erakuntzaren eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren kontzeptuen analisia. Taldekideak: Karlos Pérez de Armiño, Alba Linares, Irantzu Mendia, Itziar Mujika eta Iker Zirion.

Gai horri buruzko proiektu hau egiteko GLEAren diru-laguntza lortu zen 2016an: *Bake kritikoa eraikitzen: marko kontzeptuala eta metodologikoa gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetz*a baterako. Proiektuak Estatuko zein Portugalgo, Kolonbiako eta Hondurasko zentroetako ikertzaileen laguntza dauka.

Feminismoa eta gatazkak. Giza Eskubideei aplikatutako ikerketa feministaren metodologiari buruzko prestakuntza eta ikerketen sustapena, erakunde feministekin eta giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin lankidetzan. Taldekideak: Irantzu Mendia, Gloria Guzmán, Itziar Mujika, Iker Zirion. Laguntzaileak: Arantza Chacón, Amandine Fulchiron, Marina Gallego, Sara Hernández, Nadia López, Marta Luxan, Lidia Ruiz.

Alor horretako ekintzak proiektu hauen barnean kokatu dira: *Egia, justizia eta erreparazioarako eskubidearen aldeko ekintza feminista eta internazionalista indartzea*, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutakoa, eta Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren *Feminismoari eta erresistentziei buruzko solasaldiak*. Horrez gainera, Mugarik Gabe erakundeari laguntza eskaini zaio *Emakumeen eskubideak defendatzeko bizitza-historiak berreskuratzen* ikerketaren prozesu metodologikoan.

Giza Eskubideak Mendebaldeko Saharan. Biktimen egiazko egoera babesteko tresnak sortzeko eta giza eskubideen alde lan egiten duten Saharako instituzioen eta erakundeen gaitasunak indartzen laguntzeko. Taldekideak: Carlos Martín Beristain, Gloria Guzmán Orellana, Irantzu Mendia Azkue

eta Tatiana Montenegro. Laguntzaileak: Francisco Etxeberria, Lourdes Herrasti (Aranzadi Zientzia Elkarte) eta Arantza Chacón.

Illo hori Euskal Fondoak babesten du *Ikerketa eta gaitasunen garapena Mendebaldeko Saharan dauden Giza Eskubideen urraketen aurrean eragiteko* izeneko proiektuarekin. Gainera, GLEAk honako hau finantzatu du: “Mendebaldeko Saharako gatazka konpontzeko agenda, egian, justizian, erreparazioetan eta ez erreplikatzeko bermean oinarrituta”.

Garapen eta Nazioarteko Lankidetzaren Politika. Garapenari eta garapenerako lankidetzaren politikari buruzko eztabaidetan izandako aldaketan azterketa. Taldekideak: Koldo Unceta (ikertzaile nagusia), Yesica Álvarez, Iratxe Amiano, Jorge Gutiérrez, Andrés Fernando Herrera, Irati Labaien, Eduardo Malagón, Ignacio Martínez, M^a José Martínez, Michel Sabalza, Unai Villena eta Idoye Zabala.

Garapenerako politiken koherentziaz, garapen iraunkorraren helburuez eta 2030 Agendaz egindako lanaz gainera, 2016an, talde honek proiektu hau abiarazi zuen: *Informazio sistema harmonizatu baten diseinua euskal erakundeentzat, garapenerako lankidetzaren alorrean*. Proiektu horretarako GLEAren babesa izan du, bai eta Foru Aldundiena, Euskadiko hiriburu eta udalena eta Euskal Fondoarena ere.

Lankidetzaren kritikoa eta gizarte-mugimenduak. Hiru ikerketa-ardatz ditu: solidaritate internazionalista; jakintzen aniztasuna eta prestakuntza politikoa askatzailea; eta elikadura-subiranotasuna eta agroekologia. Taldekideak eta laguntzaileak: Jokin Alberdi, Davide Angelilli, Efrén Areskurrinaga, Beatriz Casado, Yenifer García, Michal Haramati, Itziar Hernández, Yolanda Jubeto, Berta Malvárez, Zesar Martínez, Silvia Piris, Janaina Stronzake eta Unai Vázquez.

2016an amaitu da *Jakintzen aniztasuna eta formazio politikoa askatzailea* proiektua, eta *Baserritik mundura. Gure elikaduraren etorkizuna jokoan* ikastaroa egin da. Biek ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan dute.

Hezkuntza. Hezkuntza askatzailea izan dadin pentsamendurako eta marko teoriko eta praktikoa sortzeko gunea. Taldekideak: Gema Celorio, Juanjo Celorio, Amaia Del Río, Joseba Sainz de Murieta eta Unai Villena.

VSF-Justicia Alimentaria Globalekin lankidetzan, *Elikadurarako eta Garapen Iraunkorrerako eskubiderako espazioak zabalduz genero ikuspuntuarekin, hezkuntza formaleko esparru guztietan* proiektua (4 urteko hitzarmena, 2015-2018, AECDek finantzatuta) garatzen ari dira. 2016an, halaber, *Hariak Ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritikoa eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Gizarte eta hezkuntza eragileekin topaketa* proiektua abian jarri dute GLEAk finantzatuta.

PIU-Hegoa Garapen Ikasketak. 2016. urtean, Hegoa Institutuak koordinatutako Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak lanean jarraitu du. Gezki Institutuak eta hiru ikerketa-talde finko osatzen dute unitatea: Garapen eta Lankidetzaren Politika buruzko Ikerketa Taldeak; Giza Segurtasunari, Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldeak; eta Diversityk.


Doktoretza-tesiak. Hegoaren Garapenari buruzko Ikasketen doktorego programan (UPV/EHU), 78 tesi daude matrikulatuta; horietatik 12, 2016ko deialdian matrikulatu dira. 2016. urtean hiru doktoretza-tesi irakurri dira.

4. Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak


Gaur egun, Dokumentazio Zentroak 20.300 erregistrotik gora ditu liburutegi digitalean, Hegoak 1988. urtetik metatutako ondare oparoa da, eta hartan bilduta daude garapenari eta lankidetzari buruz orain arte egin diren eztabaida nagusien lekukotasunak. Ondare hori edukitzeak eta erabiltzeak garapenerako lankidetzaren arloko lana eta politikak aurrera eramateko aukera eman die Institutuko irakasle eta ikertzaileei nahiz gizarte eragileei eta publikoari, oro har.

Dokumentazio Zentroaren zerbitzuek azken hamarkadan izandako bilakaerak erakusten duenez, Zentroan hainbat aldaketa izan dira eta ahalegina egin da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietara egokitzeko. 2016. urtean, bereziki nabarmentzekoa izan da liburutegi digitalaren online irakurgaiak izandako hedapena: PDFen 1.262.353 deskarga. Hau da, aurreko urtean baino %38,4 gehiago.

Deskargak (pdf): Liburutegi Digitala vs Hegoaren beste zerbitzu batzuk



2016an Liburutegi Digitalak izandako eskaria, geografia eremuka



• Latinoamerika • EAE • Espainiako Estatuaren gainerakoa • Europaren gainerakoa • Besteak

Hegoaren Liburutegi Digitala garapenean eta nazioarteko lankidetzan espezializaturiko gaztelaniako datu base nagusietakoa da. Datuen eskaria Amerikan izan da bereziki handia (%51), aurreko urteetan baino are nabarmenago. Bestalde, kontsulter %46 Europan egin dira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, zehazki, kontsulter %17 bildu ditu, eta Espainiako estatuko gainerako lurraldeek %23.

Liburutegi digitala: 2007 (15.905); 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757); 2011 (216.928); 2012 (514.036); 2013 (711.398); 2014 (781.354) **+%9,8**; 2015 (911.981) **+%16,7**; 2016 (1.262.353) **+%38,4** • **Bantaba:** 2011 (294.967); 2012 (391.828); 2013 (331.578); 2014 (277.828) **-%19,3**; 2015 (251.163) **-%10**; 2016 (450.920) **+%79,5** • **DHL ataria:** 2011 (267.083); 2012 (270.538); 2013 (474.564); 2014 (417.938) **-%13,5**; 2015 (463.936) **+%11**; 2016 (560.268) **+%20,7** • **Hegoaren argitalpenen webgunea:** 2011 oct-dic (16.356); 2012 (67.043); 2013 (144.758); 2014 (196.426) **+%26,4**; 2015 (274.036) **+%39,5**; 2016 (247.755) **-%10** • **Cdoc buletinak:** 2011 (13.709); 2012 (12.073); 2013 (5.589); 2014 (11.417) **+%104**; 2015 (14.658) **+%28,3**; 2016 (22.262) **+%51,1** • **Multimedia:** 2012 (81); 2013 (2.250); 2014 (2.928) **+%23,2**; 2015 (8.584) **+%193,1**; 2016 (8.081) **-%6**

5. Aholkularitza zerbitzuak

Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA) laguntza teknikoko hainbat zerbitzu eskaini zaizkio 2016an zehar, erakunde horrekin sinatutako hitzarmena betez. Laguntza teknikoak eman zaio, hain zuzen ere, lankidetzako bere programan finkatutako lan ildoak garatzeko lankidetzak eta laguntza modura. Hona hemen zertan izan den laguntza hori, labur adierazita:

- 2016ko diru laguntzen deialdirako Lankidetzak Dekretua eguneratzea.
- Lankidetzak programaren generoaren arabera inaktuaren aurretiko ebaluazio txostena.
- Aurreko urteetako deialdietan onartutako proiektuen txostenen jarraipena.
- 2016ko lankidetzak deialdiko baremazioa (126 proiektu aurkeztu dituzte GGKEek deialdiaren titulu guztietan), eta onartutako proiektuen jarraipena.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) lankidetzak arloko erakunde nagusietan informazio sistema bateratua abian jartzeko laguntza.
- BFAREN lankidetzak programan eragile berriak txertatzeko prestakuntza jarduerak.
- BFAN egiten diren bestelako proposamen batzuei begirako koordinazio iraunkorra, bai tokian tokiko proiektuen jarraipen sektorial edo geografikoa eginez bai zuzeneko lankidetzari loturiko proposamenetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GFA) lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen, honako lan ildo hauek oinarri harturik:

- 2016ko diru laguntzen deialdirako Lankidetzak Dekretua eguneratzea.
- Deialdira aurkeztutako proiektuen baremazioa (100 proiektu) eta aktibo dauden proiektuen jarraipena.

- GFAREN Garapenerako Lankidetzaren Esparru Estrategikoa gizarteratzeko laguntza.
- EAEko lankidetzak arloko erakunde nagusietan informazio sistema bateratua abian jartzeko laguntza.
- GFAREN lankidetzak programan eragile berriak txertatzeko prestakuntza jarduerak.
- Irakaskuntza materialen dibulgazioko euskarazko argitalpenen ildoarentzako laguntza.

Era berean, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu zen honako jarduera hauek gauzatzeko:

- Zuzeneko lankidetzako proiektu bat abian jartzeko aholkularitza.
- Erabiltzen diren tresnen azterketa eta etorkizunerako proposamena.
- Erakunde arteko koordinaziorako laguntza.

Euskal udalekin egindako lanari dagokionez, 2016ko lankidetzak arloko deialdietarako aholkularitza eman zaie Eibar, Irun eta Ordiziako udalei (36 proiektu barematu dira). Gainera, udal horiekin aldi-aldi komunikazioa dugu, txostenen jarraipena egiteari eta ekitaldi bakoitzeko deialdiak prestatzei begira.

6. Erakunde organigrama

Hegoa Institutuaren Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaria: Karlos PÉREZ DE ARMIÑO **Idazkaria:** Jorge GUTIÉRREZ **Kontseilukideak:** Yesica ÁLVAREZ, Iratxe AMIANO, Maite FERNÁNDEZ-VILLA, Marisa LAMAS, Zesar MARTÍNEZ, Irantzu MENDIA, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Almudena SAINZ

Hegoa Elkartean Zuzendaritza Batzordea

(Herri Onurako Elkartea izendatua. EHAA, 165. zkia., 2003ko abuztuaren 26a)

Lehendakaria: María Victoria LAMAS **Lehendakariordea:** Luis GURIDI **Idazkaria:** Eduardo BIDAURRATZAGA **Diruzaina:** Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN

Hegoa Institutuari atxikitako irakasle eta ikertzaileak

Xabier AIERDI, Jokin ALBERDI, Iratxe AMIANO, Efen ARESKURRINAGA, Marta BARANDIARAN, Xabier BARRUTIA, Mirene BEGIRISTAIN, Roberto BERMEJO, Eduardo BIDAURRATZAGA, Gorka BUENO, M^a Luz de la CAL, Juanjo CELORIO, Marian DÍEZ, Alfonso DUBOIS, Artizar ERAUSKIN, Iker ETXANO, Mikel de la FUENTE, Xabi GAINZA, Luis GURIDI, Jorge GUTIÉRREZ, Iñaki HERAS, Juan HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, David HOYOS, Pedro IBARRA, Yolanda JUBETO, Irati LABAIEN, Mertxe LARRAÑAGA, Imanol MADARIAGA, Eduardo MALAGÓN, Mari José MARTÍNEZ, Zesar MARTÍNEZ, Elena MARTÍNEZ TOLA, Irantzu MENDIA, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Víctor POZAS, Uri RUIZ BIKANDI, Joseba Andoni SAINZ DE MURIETA, Bob SUTCLIFFE, Juan TELLERÍA, Luis Miguel UHARTE, Koldo UNCETA, Unai VILLALBA, Idoye ZABALA, Patxi ZABALO, Iker ZIRION, Imanol ZUBERO, Luis M^a ZUPIRIA

Talde teknikoa

Koordinatzaile orokorra: Maite FERNÁNDEZ-VILLA **Prestakuntza:** Gema CELORIO, Marisa LAMAS **Dokumentazioa, argitalpenak eta komunikazioa:** Iñaki GANDARIASBEITIA **Proiektuen kudeaketa**

eta aholkularitza zerbitzuak: Iñigo ALDEKOZEA, Gema CELORIO, Amaia DEL RÍO, Gloria GUZMÁN, Tatiana MONTENEGRO, Carlos PUIG, Michel SABALZA **Administrazioa eta finantzak:** Joana del OLMO, Almudena SAINZ **Generoari buruzko barne taldea:** Gema CELORIO, Amaia DEL RÍO, Maite FERNÁNDEZ-VILLA

Ikertzaile kontratatuak: Beatriz CASADO, Unai VILLENA **Prestakuntza arloko ikertzaileak:** Yesica ÁLVAREZ, Leire AGIRREAZKUENAGA, M^a del Mar GONZÁLEZ, Alba LINARES, Julia MARTÍ

Sareak eta lankidetzak


AIPAZ: Asociación Española de Investigación para la Paz – ALDEE: Euskadiko artxibozain, dokumentalista eta liburuzainen elkarte – Alianza Latinoamericana de Estudios Críticos sobre Desarrollo – ARDA: Agrupación de Investigación y Docencia de África – Asociación de Economía Crítica – EADI: European Association of Development Research and Training Institutes – Enlazando Alternativas: Red birregional Europa-América Latina y el Caribe – Espainiako GGKEen Koordinakundea (lankidea) – Euskadiko GGKEen Koordinakundea (lankidea) – Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren aldeko Eragileen Aliantza – Fiare Banca Ética – GEA: Grupo de Estudios Africanos – Harresiak Apurtuz Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKEen koordinakundea – IAFFE: International Association for Feminist Economist – Mosaiko – Programa Amanda – REAS: Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea – REDIAL: Red Europea de Información y Documentación sobre América Latina – REEDES: Red Española de Estudios del Desarrollo – SEDIC: Sociedad Española de Documentación e Información Científica – SEM: Sociedad de Economía Mundial – SID: Sociedad Internacional para el Desarrollo – Tesela – WEA: World Economics Association – WIDE: Women in Development Europe

Lankideak


Eskerrak eman nahi dizkiegu urtean zehar egindako jardueretan era batera edo bestera Hegoa Institutuarekin lankidetzan aritu diren guztiei.

7. Hegoa Elkartearen txosten ekonomikoa

HEGOA ELKARTEAREN 2016KO KONTUAK. EUROTAN. 2016/12/31



- Eusko Jaurlaritza
- Fondo propioak
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskal Fundoa
- Espainiako Gobernua
- Beste diru-laguntza pribatu batzuk
- UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako
- Beste ekarpen batzuk
- Finantza-interesak



- Langile guztien gastuak (11,53 lanaldi oso)
- Egoitzako gastuak, proiektuak gauatzeko
- Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)
- Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)

2016ko ekitaldiari egotzitako sarrerak	1.091.187,06	%100,00
Eusko Jaurlaritza	590.920,48	%54,15
Fondo propioak (kuotak, zerbitzuak...)	237.437,71	%21,76
Gipuzkoako Foru Aldundia	133.073,47	%12,20
Euskal Fundoa	52.260,38	%4,79
Espainiako Gobernua	28.726,66	%2,63
Beste diru-laguntza pribatu batzuk	25.602,14	%2,35
UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako	20.000,00	%1,83
Beste ekarpen batzuk	1.894,00	%0,17
Finantza-interesak	1.272,22	%0,12

2016ko ekitaldiari egotzitako gastuak	1.059.090,59	%100,00
Langile guztien gastuak (11,53 lanaldi oso)	530.070,20	50,05%
Egoitzako gastuak, proiektuak gauatzeko	368.956,48	%34,84
Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)	141.989,00	%13,41
Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)	18.074,91	%1,71

2016ko ekitaldiko emaitza (irabazia): 32.096,47